



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

ALKARTE ABEGITSUAK

GARIZUMA 2021

HAURREN KATEKESIA PARROKIAN



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

«ADISKIDE ETA SENIDE, COMUNIDADES ACOGEDORAS»

Garizuma aldi honetan, “hartu” hitzaren esanahia nabarmendu nahi dugu, Jesus gure bizitzetan hartuz abian garen pertsona, familia, elkarte abegitsu izaten lagunduko digun hainbat jarrera landuz. Jarrera horiez baliatuz erakutsiko diegu mutiko eta neskatoei zein bidetatik jo behar dugun Jesus hartzeko eta gure bizitzetan honen lekuko izateko, besteak ere hartuz.

Jesusen bidetik aurrera egiteko dei egiten zaigula sentitu behar dugu, hau da, dei egiten zaigula lagundu, entzun, hartu, artatu... dezagun, aurrean duguna, adiskide ala ezezagun den kontuan hartu gabe. Hainbat keinu eta ekintza txiki ala handiz eginda dago gure bizitza eta horiek Jesusen aurpegi maitatia agertu behar dute. Harrera samurra egiten duen, arretaz entzuten duen, behar duenari, eta bereziki ahulenei, laguntzen dion Jesusen aurpegi maitatia.

Saioaren amaieran, abegitsu izateari begira, Jesusen bizimodu hori geure egiteko, konpromisoak hartzeko eskatuko zaigu. Baina horretarako, aurretik, ezagutu egin behar dugu, geure bizitzetan hartu eta bere atzetik jarraitzen saiatu, bere jarrerak geure eginez.

Horixe da haurrei helarazi nahi dieguna eta beraiekin landu nahi duguna Garizuma aldi honetan, katekesiko saioan.

Eta abegitsu izan nahi dugula adierazteko, ateak eta leihoak parez pare zabalik dituen etxearen irudiaz baliatuko gara. Prest zaude? Gure etxeko sarrerako atean ekingo diogu ibilbide honi...

“GUZTIOK ETXEKO SENTIARAZIKO GAITUEN FAMILIA HANDIA EGITEKO AUKERA EMATEN DIGUN MAITASUNA” [FT 62]



SAIOAREN GARAPENA

- Etxearen fatxadaren irudiaren haritik jardungo dugu: atea, sarrera eta harrera-leku bezala eta leihoak mundura irekita.
- Eremu edo gela bakoitza aditz edo jarrera bati lotzea da xedea.



1 PATEA: SARRERAKO ATEA, HARRERARAKO EREMU IREKIA



IDEA NAGUSIA

- Beste pertsonen bila joatea.

☆☆ DINANIKA, "LABIRINTOA"

Labirintoaren irudian (I. eranskina), haurra negarrez ari da, galdu egin delako. Katekesiko haurrek labirintoan irtenbidea aurki dezakete, haurra aiton-amonekin elkar dadin.



Irtenbidea aurkitu ondoren, abegitsu izateak badu zerikusirik labirintoan irtenbidea aurkitzearekin. Labirintoan, sarrera irteeratik aldentzen duen hainbat oztopo edo horma dago. Aurrez aurre izan duzuen labirintoan, aiton-amonak eta biloba bananduta zeuden eta, ondorioz, atsekabetuta. Hartzea, pertsonok elkarrengandik banantzen gaituen hormak behera botatzea da. Besteei atea irekitzea da. Desberdinari zabaltzea da.

Galderak haurrekin elkarrizketan jarduteko:

- Zerk aldentzen gaitu pertsonengandik?
- Zerk banantzen gaitu?
- Labirintoan oztopoak gainditu ditugun bezala, nola gaindi ditzakegu alde horiek?

2 LEIHOA IREKITA ENTZUTEKO



IDEA NAGUSIA

- Gure etxeko leiho honetan, Jesusek norbait hartzearen inguruan dioskuna ENTZUN egingo dugu. Zer ote da?, zer diosku Jesusek? Arretaz entzun dezagun.



✧✧ "SAMARIAR ONAREN" EBANJELIOA LK 10, 25 -37

"Behin batean, gizon bat zihoan Jerusalemetik behera Jerikorantz eta lapurren eskuetan erori zen; zeuzkanak kendu eta, egurtu ondoren, alde egin zuten, erdi hilik utziz. Apaiz bat gertatu zen, hain zuzen, bide hartan behera, eta, gizona ikustean, bidetik okertu eta aurrera jo zuen. Gauza bera egin zuen handik igaro zen tenpluko lebitar batek ere: ikustean, bidetik okertu eta aurrera jo zuen. Baina bidaian zen samariar bat bertara iritsi eta, hura ikustean, errukitu egin zitzaion. Hurbildu eta zauriak lotu zizkion, olio eta ardoz igurtzi ondoren; gero, bere asto gainean ezarri, ostatura eraman eta bere ardurapean hartu zuen.

Biharamunean, zilarrezko bi txanpon atera eta ostalariari eman zizkion, esanez:

- «Zain ezazu eta, gehiago gastatzen baduzu, hurrena natorrenean ordainduko dizut».
- Zure ustez, hirurotan zeinek jokatu zuen lagun hurko bezala lapurren esku eroritako gizonarekin?
- Lege-maisuak erantzun zion: Hartaz errukitu zenak.
- Jesusek esan zion, orduan: Zoaz eta egin zuk ere beste horrenbeste"

Ballaz, Jesús, "Parábolas de Jesús", Laude-Edelvives, Zaragoza, 2020, pg 34

Parabola honetan, HARTZEKO beste era bat dagoela ikusi dugu.

Haurrekin elkarrizketan jardungo dugu ondorengo galderez baliatuz:

- Zer pertsonaia agertzen da?
- Zer egiten du horietako bakoitzak?
- Nork jokatzeko du zuzen zaurituarekin?
- Zer egiten dio?

CESAR GARCIA-RINCONEN "COMO EL BUEN SAMARITANO" BIDEO-ABESTI HAU IKUSIKO DUGU



**BIDEOA IKUSTEKO,
KLIKATU IRUDIAN**



IDEA NAGUSIAK

- Bideo honetan, 6 aditz proposatzen dira anai-arreba hartzeko: begiratu, sentitu, hurbildu, lagundu, lotu, ospatu.
- Abestiaren leloak hauxe errepikatzen du: *"quiero servir, aquí están mis manos, quiero sentir que somos como hermanos, que somos como hermanos..."*

Haurrekin elkarrizketan jardungo dugu:

- Zein aditz, zein ekintza aukeratuko dut egunotan gauzatu ahal izateko? Haur bakoitzak berea aukera dezala. (Dinamika, "Bihotza")

3 LEIHOA: EGUNEZ EGUN ZAINDUENTANA,



IDEA NAGUSIA

- Egunero zaintzea.



ELKARREKIN PENTSATZEKO

Baduzue landarerik etxean? Horrela bada, etxeko norbait arduratuko da landare horiek zaintzeaz: sarri ureztatu, inausi, noiz edo noiz lurra aldatu edo ongarria bota, ateratzen zaizkien zorroen aurkako produkturen bat ezarri...

Arduraz egin beharreko lana da, egunerokoa; loreei begiratu, nola dauden ikusi eta denbora eskaini... Gizakiok, neurri batean, antzekoak gara, ezinbestekoa dugu geure burua zaintzea eta elkar zaintzea. Batzuetan hobeto gaude, besteetan okerrago... Umore oneko ala txarreko... Arazo asko ala gutxirekin... ezkatuta ala ez... Batzuetan besteei lagun diezaiekegu eta besteetan geuk behar dugu laguntza... Horregatik, ezinbestekoa da besteen beharrez ohartzea.

Landareak egunez egun nola zaindu aipatu dugu: ureztatu, inausi, lurra hobetu, zorroetatik babestu... Eta, nola zaintzen ditugu pertsonak?



DINAMIKA, "ZAINZA"

Idatzi besteak, ezagun izan ala ez, laguntzaren beharra dutenak zaintzeko era bat lore-hosto bakoitzean (II. eranskina). Amaitu ondoren, lorea margo dezakezu. Besteak zaintzea, bizitza kolorez betetzea da.

4 LEIHOA: KONPROMISOAREN LEIHOA - KONPROMISOA HARTU



IDEA NAGUSIA

- Azkenik, Jesusek, bere antzeko izateko, bihotz-berritzeko esaten digu. Baina, zer esan nahi du horrek?
- Pertsona hobe izaten saiatu eta geure buruari haxe galdetu behar diogula: Zer egin dezaket hobe izan eta besteekin abegitsuago izateko? Zein konpromiso har dezaket hori lortzeko?



☆☆ DINAMIKA, "BIHOTZA" (III. ERANSKIN)

Hurrei galderak azaldu eta guzti hori bihotzean irudikatuko dugula esango diegu.

- Nolako harrera egiten diot besteari, nire adiskide ez denari? Aukeratu dugun aditza gogoratu eta horixe idatziko dugu bihotzean.
- Norbaiti harrera ona egin ez diodan uneren bat gogoratuko dut. Bat aukeratu eta barkamena eskatuko diot Jesusi (pertsona horren izena idatziko dut bihotzean).
- Eta, azkenik, pertsonak hartzen ditudanean zer gertatzen den pentsatuko dugu. Eta gauza bera neu hartzen nautenean. Pertsona horiek nola sentitzen diren imajinatuko dut... beraiengan pentsatu... Sentimendu horiek bihotzean idatziko ditut.

Eta orain pentsatu norekin izan zaitezkeen abegitsu, pentsatu nola egin eta saiatu betetzen.

5 AMAITZEKO

Katekesiko saio honetan, HARTU horrek zer esan nahi duen ikusi eta espermentatu dugu eta hori gauzatzeari begira, ekintza txiki edo konpromiso batzuk hartu ditugu.

Horixe eskatzen digu Jesusek. Baina ekintza horiek ez dute katekesiko tarte honetan geratu behar. Garizuma aldi honetan, gure jarreraren inguruan hausnartu egin behar dugu, Berri Ona entzun eta otoitz egin, Jesusek egiten digun proposamena hobeto ezagutzeko: Bere antzeko izan, berak bezala jokatu gehien behar gaituztenen alde konprometituz, zainduz, beren kargu hartuz, geure anai eta arreba direlako.


Kontatu konpromiso hauek aitari eta amari; esan zer egin duzuen katekesiko saioan eta lagundu haiei ere abegitsuago izaten. Aurrera!

Eta amaitzeko, Garizuma aldiari buruzko azalpenak ematen dituen bideoa ikusiko dugu, "Conviértete", Unai Quiros.




**BIDEOA IKUSTEKO,
KLIKATU IRUDIAN**

✧✧ I. ERANSKINA



✧✧ II. ERANSKINA



✧✧ III. ERANSKINA

